



MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI BURUZKO ABISUA 5872/2023 Zkia

Sortutako data eta ordu lokala: 2023/10/20, 10:30.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2023/10/20, 19:30
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

◆ Zergatia:

Haizea: haizeguneetan
Haizea haizeguneak ez diren tokietan
Itsasaldeko Arriskua: Nabigazioa lehenengo bi milietan
Itsasaldeko Arriskua: Kostaldean inpaktua

◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Ostirala, hilak 20:

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 18etara ordu lokala.

Mendebal-osagaiko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezake haizeguneetan. Goizean hego-mendebaldeko haizea nagusituko da eta bolada gogorrenak mendi inguruetan izango dira. Eguerdia inguruan mendebaldeko haizea nagusituko da eta orduan bolada gogorrenak kostaldean neurtuko dira, bereziki Bizkaian.

- Alerta Laranja haizeagatik haizeguneetan Bizkaiko kostaldean 10etatik 15etara ordu lokala.

Mendebaldeko haize-boladek 110-120 km/h-ko abiadura gaindi dezake Bizkaiko kostaldeko haizeguneetan, bereziki kostaldeko lekurik haizetsuenetan.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 06etatik 15etara ordu lokala.

Mendebal-osagaiko haize-boladak 60-80 km/h ingurukoak izango dira haizeguneak ez diren lekuetan eta kostaldetik hurbil dauden tokietan 80 km/h ingurukoak. Goizean hego-mendebaldeko haizea nagusituko da eta bolada gogorrenak barnealdean izango dira. Eguerdia partean haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egingo du eta orduan bolada gogorrenak kostaldetik gertuen dauden lekuetan neurtuko dira.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 09etatik 12etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria goizean igo egingo da, 3,5 m-ak gainditu arte, eta eguerditik aurrera baliteke 5 m-ak gainditzea. Mendebal/ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2-3 m inguruko olatuak altxatuko ditu eta eguerditik aurrera 3-4 m-koak. Olatuen arteko periodoa: 14-15 s. Mendebal/hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, 7ko indarrarekin eta eguerdia inguruan mendebal/ipar-mendebaldera egingo du. Itsaskia eragingo du, eta eguerditik aurrera itsaso oso zakarra.

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izango da eta azken orduetan 4-5 m-ra jaitsiko da. Mendebal/ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m-tik gorako olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 13-14 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da, 7ko indarrarekin eta 8ko tarteekin; azken orduetan baretu egingo da, 6ko indarrera eta mendebal/hego-mendebaldeko haizea nagusituko da. Itsaso oso zakarra eragingo du, itsaso handiko guneeekin; azken orduetan itsaskirra edo itsaskira jaitsiko da.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Kostaldean inpaktua**; olatuen zipriztinak 12etatik 24etara ordu lokala.



Olatuen ezaugarrien eta mendebal-osagaiko haize zakarraren ondorioz pasealeku eta malekoietan ziprztin eta olatu-zaparrak erori daitezke, bereziki itsasgoraren inguruan noiz olatuek itsasertza gaindi dezaketen tarte laburretan. Olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izango da. Itsasgora 21:01etan (ordu lokala) izango da 4.03 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 3.68 m + meteorologikoa: 0.35 m. Olatuen arteko periodoa: 13-14 s. Gainezka egiteko indizeak: $l=5.8$ m y $l_{max}=6.4$ m

Larunbata, hilak 21:

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 21etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4-5 m ingurukoa izan daiteke goizaldean; jaisten joango da amaieran 3.5 m ingurukoa izan arte. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 4 m inguruko olatuak altxatuko ditu hasieran, amaieran 3-3.5 m ingurukoak. Olatuen arteko periodoa: 13 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da; egunaren lehen zatian hego-mendebaldekoa izango da 4-5eko indarrarekin, eta mendebal/ipar-mendebaldekoa arratsaldean 3-4koarekin; gauean aldakor geratuko da 2-3koarekin. Itsaso kizkurra edo itsaskirria eragingo du; arratsaldean itsaskirria edo itsaskira handituko da.

◆ **Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:**

Haizeguneetan orain arte neurtutako hego-mendebaldeko haize-bolada maximoak (km/h):

Matxitxako: 130

Punta Galea: 106

Cerroja: 105

Kapildui: 104

Haizeguneetan orain arte neurtutako hego-mendebaldeko haize-boladak (km/h):

Zegama: 81

Galindo: 77

Navarrete: 74

Sigue la información en Twitter- Informazioa Twitter-en jarraitu.

@112_SOSDeiak @Euskalmet